

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren aurkezpenarekin bukatzeko, kostuak nola egituratuta dauden azalduko dugu. Alde batetik, kostu finkoen artean, furgoneta eta karpa baten amortizazioa daukagu, baita publizitatea ere. Beste aldetik, kostu aldakorak ere baditugu, hala nola, behin-behineko hornitzaileak eta produktuak. Gure enpresan hainbat ekintza desberdin egingo ditugunez, gure produktuen hornitzaileak aldatzen joango dira, eta horrekin batera, gure produktuen selekzioa ere bai.

Gure kasuan, ez dugu kostu sozialik eragingo, are gehiago, gure enpresaren planteamenduaren ondorioz, onura soziala sortuko dugu; esate baterako, ekologikoak diren produktuak salduz edo kontzientzia soziala sortzeko tailerrak eginez.

Azkenik, aipatu beharrekoa da furgoneta garraio moduan erabiltzeaz aparte, banatzaile moduan ere erabiliko dugula. Batetik, lekuz-leku bidaiatzeko erabiliko dugulako, eta bestetik, saltzen ditugun produktuak bertan gordeta egongo direlako.

